

ZMA

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri albizkaria • 89.alea. 2024ko iraila



NAGORE UGARTE

Aste Nagusiko txupinera



Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com

Euskara eroso bizitzeko

Vive el euskera
cómodamente

aek

euskara praktikoa



Zorrotza AEK euskaltegia

2024-2025 IKASTURTEA

MATRIKULA ZABALIK • EMAN IZENA

Zalbidea 7, behea | **94 441 49 20** | **zorrotza@aek.eus**

DIRULAGUNTZAK / BECAS

EUSKO JAURLARITZA:

maila egiaztatuz gero.
Gobierno Vasco, acreditando un nivel

BILBOKO UDALA

Maila eta asistentzia egiaztatu behar da.
Acreditar nivel y asistencia

ZM

ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldizkaria

89. alea. 2024ko iraila

 www.zorrotzmorrotz.eus

 zm@zorrotzmorrotz.eus

 @ZorrotzMorrotz

 @zorrotzmorrotz

 @zorrotzmorrotz

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara Garcia
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:


Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina

 Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du. Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Bilbao
EUSKAL
HERRIKOA

sarrera

Jaietan murgilduta, eta energia berrituekin, ikasturte berri bati ekiteko prest!

Beste urte batez, oporraldiaren ondoren energia berrituekin ekingo diogu ikasturteari. Eta gogoz itxaron diegun auzoko jaietan murgilduta egingo dugu. **Gora Zorrotzako jaiak!!**

Era berean, gure konparatsak aurtengo Aste Nagusian egindako ekarpen bikainari aipamen nabarmena eskaini nahi diogu. Halaber, Nagore Ugarte Txinbotarrak taldeko kide eta aurtengo txupinera zoriondu nahi dugu, Itziar Ituño pregoilariarekin batera Bilboko herritarren ordezkaririk bikaina izan baita.

Hori esanda, burubelarri jarraituko dugu auzoan ditugun arazo garrantzitsuak konpontzeko. Une honetan, nabarmenena Sader-Profersa enpresa auzotik behin betiko ateratzea da. Beste behin ere errepikatuko dugu: hautatuko den

kokapen berrian lanpostu guztiak mantenduko direla bermatuta. Era berean, kokapen hori egokia izatea espero dugu, eta ez gatazka-iturri, orain arte izan den bezala. Ikuspegi horrekin, lanean jo ta ke jarraituko dugu Sader Profersaren lekualdatzea berandu baino lehen lortzeko, eragindako gainerako auzoekin elkar-lanean, baita Bilboko Auzo Elkarten Federazioaren erabateko babesarekin ere.

Herritarren Segurutasun Sailarekin eta Udaltzaingoarekin harremanetan jarraitzen dugu, baita Zorrotzako beste udal arlo batzuekin ere, bizikidetzako soziala hobetzeko.

Eta Osakidetzako egor-
rak beste kezka bat izaten jarraitzen du. Adi egon, baliteke gutxi barru mobilizazioei berriro ekitea.

Beraz, lanera!
Zorrotza aurrera!



Lápices
LIBRUVENDENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

SAZ
OKINDEGIAK

Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

Jai-Alai
kafetegia

Aparo estrata, 12
94 490 12 59

B
BiziFitness

Zure zain gaituzu
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora



Dena prest Zorrotzako jaiez gozatzeko

AITOR MARIN

Irailaren 27tik aurrera jaietan murgilduko gara berriro zorrotzarrok. Musikaz, antzerki-az, kirolaz, eta ondo pasatzeko aukera ugari betetako bederlatzi gau eta eguneko programaz disfrutatzeke aukera izango dugu: txosnak, kontzertuak, lehiaketa gastronomikoak, tailerrak, etab. ez dira faltako Azoka parkeko esparruaren barruan zein kanpoan.

Adin guztientzako jarduerak prestatzen ahalagindu da Jai Batzordea. Gazteentzako eskaintza zabalaz gain, umeentzako hainbat ekintza ere badaude (kuadrillen lehiaketa barne), baita nagusientzat ere, 60 urtetik gorakoei espresuki zuzendutako ekintzak izango baitira hirugarrenez. Guztion parte hartzea eskatzeaz gain, jaiak posible egiten dituzten pertsona guztiak eskertu nahi izan ditu. "Horien ahaleginagatik izan ez balitz, Udalaren ekarpen tristearekin, daukagunaren moduko programazio bat pentsaezina litzateke" salatu du Jai Batzordeak.

Musikari dagokionez, *Kresala* eta *Versus* taldeek errepikatuko dute Azoka parkeko eszenatokian lehenengo ostiralean eta azken larunbatean hurrunez hurren. Horretaz gain, lehenengo larunbatean, La Patera tributo a Marea eta Sopayaso tributo a Extremoduro rock taldeek alaituko dute gaua, eta DJ Markelin eta DJ Rull taula gainean arituko dira bigarren ostiralean.

Euskara bultzatzeko ekintzak

Umeei zuzendutako Naita produkzioak taldearen "*Kontu eta kanta*" antzerkia babesu du Zorrotzako Euskal Txokoak, irailaren 28an, larunbatean. Aipatzekoa da era berean hurrengo egunean, irailaren 29an eguerdiko 12etan, Kun Kun eta Askabide Kultur Elkarteek babestuta antolatutako bertso saio handia. Bertan, Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapeladuna, Nerea Ibarzabal eta Julio Soto, Bizkaiko eta Nafarroa txapeladunak hurrenez hurren, eta Joanes Illarregi bertsolariak taularatuko dira Azoka plazako kioskora.

Azido klorhidriko isuri txiki bat erregistratu zuen Saderrek udan

ZORROTZ MORROTZ

Informazio ofizialaren arabera, ekainaren 20an, "hamar minutu inguru" iraun zuen "hodei zuri" bat sortu zen, "kamioiaren mahukaren barruan geratzen zen likidoaren zati bat lurrera erorita", azido klorhidrikoa biltegi batera deskargatzen zen bitartean. Enpresaren arabera, gertaera txikia izan zen, ("tanta batzuk baino ez"), eta ez dago jasota auzokideen kezarik egon zenik.

Mikel Jauregi Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburu berriak Eusko Legebiltzarrerara bidalitako 2023 eta 2024ko Sader eta Profersan gertatutako kexa, abisu, salaketa, gorabehera, ikuskapen edo istripuen zerrendari esker jakin zen istripu horren berri. Aurreko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburu Arantxa Tapiak EH

Bilduko Mikel Oterok eskatuta bidalitako dokumentazio ugaria osatzen du zerrenda berri horrek. Dokumentazio horretan hainbat gorabehera jaso dira, eta auzotarren kexa ugariak egiaztatu dira; horietako batzuk, joan den maiatzean erregistratutako sute kimikoaren ondorioz, Profersa (tximinia duen fabrika) geldirik egon zen garaian ere bai, "ke zuriko izurketek eztarrian azkura eragiteagatik" adibidez.

Informaziorik gabeko gertakari berria

Sader Profersa Kanpora plataformak pasa den irailaren 7an bere sare sozialetan bideo bat argitaratu zuen non suhiltzaileen eta udaltzainen hainbat unitate agertzen diren Sader Profersa lantegiaren aurrean. Oraingoz, inork ez du argitu zertara joan ziren bertara.



Bilboko Udalak hasiera eman die Zirgarien parke berriko obrei

AITOR MARIN

Parke hori auzoko erreferentziarako espazio berrietako bat izatea nahi du Udalak, eta 2.653.620,19 euroko inbertsioa jasoko du. Pasa den irailaren 16an hasi ziren lanak hamar hilabeteen amaituko direla kalkulatzen da.

Guztira, 11.022 metro koadro izango ditu parkeak, eta berdeguneak, egoteko guneak, jolaserako guneak eta kirol-guneak izango ditu. Horrela, alboko lurzatian aurreko fase batean egindako pump trackaren ondoko espazioaren kirol-eskaintza zabalduko da. Gainera, bidegorriari jarraipena emango zaio eremu atseginoan, eta oinezkoen ibilbideak bultzatuko dira espazio berriaren barruan.

Metroaren 4. linearen proiektuaren idazketen atzerapenak salatu ditu EH Bilduk

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko EH Bilduk onartezina deritzo proiektuaren idazketan urtebete baino gehiagoko atzerapenari eta "borondate politikoa eta gauzatzeko konpromisoa" beharrezkoak direla adierazi du. Prentsa ohar baten bidez azaldu dutenez, EH Bilduk "L4ren eraikuntzaren buru izan dadila eskudunen aurrean" eskatu dio Juan Mari Aburto alkateari.

Auzokideen kritikak

Proiektuak auzokideen kritikak eragin zituen obren lizitazioa onartu zenean, ekarpenik jasotzeko aukerarik ez zelako egon. Gainera, Auzo Elkarteak gogoratu du aparkalekurik eza auzokiden arteko kexa nagusienetakoa dela, "eta Jabonerako orubeko aparkaleku guztiak kentzen diren aldi berean, Udalak eremu publikoa oparitzen dio Sader enpresari 4 metroko altuera duen horma baten atzean aparkaleku pribatua izan dezan.

Bestalde, *Sader Profersa kanpora!* plataformak sareetan saslatu duenez, Sader eta Profersa "Udalaren proiektu honen parte dira" eta "EAJk hainbeste aipatzen zuen borondate politikoa non dagoen" galdetu dute.

2023ko martxoaren 9an Fulcrum Planificación S.A.U. enpresari esleitu zitzaion 4. lineako eta hegoaldeko zonako eraikuntza proiektua idazteko zerbitzua egiteko kontratua eta lana 15 hilabeteko epearekin burutuko zela aurreikusi zuten, 2024ko ekainaren 19an amaituko zela ezarrita. Patxi Xabier Fernández EH Bilduko zinegotziak azaldu duenez, EH Bilduk txostenaren kopia eskatu zuen legebiltzarrean, eta Euskal Trenbide Sareko Kontratazio Batzorde Delegatuak, uztailearen 11n emandako ebazpenaren bidez, kontratuaren epea 2025eko uztailearen 19ra luzatzea onartu zela jakin dute. Beraz, proiektua idazteko lanak urte eta hilabete beranduago egingo dira.



Argalarío (514m.)

MANU COBO

Triano/Grumeran mendien gailurra, Trapaga edo Trapagarango haran industrialak menderatzen dabean gailur-kordal bat osatzen dauena, eta ekialderantz El Regato urtegiak (108 m) biltzen dabean sakana-gaz amaitzen dana. Gailurra Euskal Herriko katalogoan agertu zan, baina logikari jarraiki, Mendibil (549m) jarri zen haren orde, 2014. urteko berrikuspenean garaiagoa eta nabarmenagoa zana. Inguru hori izan zan meatze-hazkunderik handiena mendean zehar. XIX. Garai hartan, mendi hauetatik, burdin mineral prezia-tua lurrera erazteko. Beharrek parekorik gabeko eztanda demografikoa eragin

ebien Bizkaian, eta, horren ondorioz, Zugastieta eta La Reineta meatze-herrixkak sortu ziran, 400 metroko altueran egozan ustiategietatik hurbil.

Auzotik igotzeko Gurutzetara joango gara eta handik Gorostizara jeitsiko gara. Errepidea igarota Mengolearantza hartuko dogu bidea, errepidea jarraituz, pista bat ikusiko dogu, ez dau galtzerik. Jeisteko Zugastietarantz hartu ahal dogu bidea eta aukera bi, edo funikularra hartu eta Trapagaranen trenra edo busa itzultzeko edo antzineko mehatz trenbidera jeitsi ta Errekaorture (Erretuerto) etorriko gara lasai lasai bide lau eta on batetik.



Argalarío mendia Zorrotzatik ikusita



Zorrotzako *jaiak* 2024



irailak 27 ostirala

> 23:00 **KRESALA**

irailak 28 larunbata

> 23:00 **LA PATERA**
tributo a **VIAREA**

> 01:00 **SOPAYASO**
tributo a *Extremoduro*

irailak 29 igandea

> 19:30 conjunto **AFINKAO**

urriak 4 ostirala

> 23:00 **DJ MARKELIN**

> 02:00 **DJ RULL**

urriak 5 larunbata

> 23:00 **orquesta
VERSUS**

urriak 6 igandea

> 18:30 **DANTZA ALAI**
taldea

Azoka plazako txosnagunean | Txosnagune de la plaza del Ferial

Zorrotzara
heltzeko:



Bilbobus · 18 · 85 · 88

Bizkaibus · A3115 · A3116 · A3122
· A3136 · A3137 · A3144
· A3336 · A3341
· A3342 · A3343



renfe · C1 · C2 Zorrotza



feve

Zorrotza - Zorroztogi



metro bilbao

Gurutzea. Getxotik, 10 minutu oneko



ZORROTZAKO
JAI BAZARDEA



AUZOTARROK
BARRIO SUCESIVO DE BILBAO

// Eskertuta nago seme-alabek nik ezin izan ditudan aukerak izango dituztelako //

ELSA BENICIO

Jaiotokia: Mansoa (Ginea-Bisau)

Noiztik hemen: 1997tik

Adina: 49 urte

Lanbidea: Laguntzailea taberna batean.

Elsa 1997an iritsi zen Bilbora Ginea Bissautik, orduko bikotekidearekin elkartzeko. Ordutik, oztopo asko gainditu behar izan ditu. Egun, Altamiran bizi da bere bikotekide berriarekin eta Zorrotzan ikasten ari diren seme-alabekin, oso esker oneko haiei eman ahal dizkielako berak izan ezin izan zituen aukerak etorkizun hobe bat izateko.



TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MARIN

Noiz eta nolatan heldu zinen hona?

1997an iritsi nintzen Portugalerako bisa batekin. Bikotekide ohia nire bila etorri zen Portugalera, eta berarekin iritsi nintzen Bilbora. Hiru seme-alaba izan nituen berarekin, baina 2004an banandu egin ginen. Nire bikotekide berria ezagutu nuen, eta beste hiru seme-alaba gehiago izan ditut. Hona iritsi nintzenez, ez nuen bertan geratzeko asmorik. Portugalera joan nahi nuen nire herrialdean ikasten ari nintzen finantza-kudeaketako karrera amaitzera. Baina zirkunstantziak behartu ninduten hemen gelditzera eta ezin izan nuen nire gaztetako ametsa amaitu. Paperik gabe iritsi nintzen, atzeritartasuneko poliziak atxilotzeko beldurrez. Horrela suertatu zen eta Portugalera bota ninduten, baina hurrengo egunean itzuli nintzen, nire bikotekide ohia nire bila joan baitzen berriro. Hurrengo astean berriro atxilotu ninduten, baina ez neukan

beste irtenbiderik... Paperak konpondu behar izan nituen, baina denbora luzea eman nuen ezkutuan eta ihes egiten bizitzen. Askok sufritu nuen, baita nire herrian ere, baina bizitza hobea bilatu nahi nuen, eta, ahal dudan neurrian, gaur nire familiari lagundu diezaioket eta nire seme-alabek nik ezin izan ditudan aukerak izango dituzte beren ametsak egia bihurtzeko.

Askok kostatu zitzaizun hemengo bizitzara egokitzea?

Hasieran, bai. Ez nuen ezer eta inor ezagutzen; nire senar ohia bakarrik. Ondoren, Angolako gizon bat ezagutu nuen, eta haren ile-apaindegian hasi nintzen lanean, Alde Zaharrean, baina kontraturik gabe. Altamirako adineko emakume bat zaintzen ere egon nintzen lanean. Goizeko 10etan sartu eta arratsaldeko 8etan bukatzen nuen... San Frantziskoko gela batean bizi izan nintzen denbora batez, baina

“Hemen gehien gustatzen zaidana bertako jendea da. Oso jende ona da, eta guztiak oso ondo hartu gaituzte



bota egin ninduten ezin nuelako ordaindu. Herrikide batek lagundu zidan, bere bikoteki-dearekin bizi zen gelara eramanda, eta aurrera egin ahal izan nuen. Etxez-etxe txirikordak egiten aritu nintzen, bizitzeko leku bat lortu nuen arte, eta gaur arte... Egun, familiarekin Altamiran kokatuta nago. Baina oso bide gogorra izan da.

Altamiran bizi zaren arren, zure seme-alabak hemengo eskolara doaz... Noiztik? Iaztik. Nire senarrak taberna bat darama Zorrotzan ikastetxe ondoan, eta, lanagatik, ia bizitza osoa hemen egiten dugu.

Betidanik egin du berak lan ostalaritzan? Ez, ez zuen lehenago honetan lan egin. Nik bai. Taberna askotan lan egin dut, eta taberna hartzera animatu nuen. Ea ondo ateratzen zaigun... Egun batzuetan ondo egiten da lan, baina beste batzuetan ez guk nahiko genukeen bezain ondo... Nolanahi ere, oso eskertuta gaude gure bezeroekin, lan gogorra den arren. Egunean zehar, ordu asko dira barraren atzean.

Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna? Hemen bizi den jendea. Oso jende ona da, eta guztiak oso ondo hartu gaituzte. Taberna Zazpi Landan dago eta hortik mugitzen gara. Ia ez gara auzoaren erdialdera joaten, beharrezko erosketak egitera izan ezik... Gure errutina etxetik lanera eta lanetik etxera ematera apenas mugatzen den.

Zer moduz moldatzen zara euskaraz?

Ufa, ez dut ezer ulertzen. Nire seme-alabek bai; hitz egiten eta ulertzen dute. Zaharrena izan ezik, denak hemen jaioak dira eta txikitatik ikasi zuten eskolan. Gustatuko litzaidake ikastea, bai horixe. Baina orain, denborarik ez izateaz gain, nire adinarekin eta ditudan zama guztiekin, ikasteko gogorik ez dut.

Urte asko eman dituzu Bilbon. Hiri abegikorra dela esango zenuke?

Bai. Zalantzarik gabe. Oso jende ona dago. Ez dut Bilbo orain ezergatik aldatuko. Oso ondo nago hemen, oso eskertuta Euskal Herriari. Eta nahi dudana da lanean jarraitu, familiarekin bizi eta seme-alabak aurrera atera ahal izatea.

Bueltatu izan zara noizbait Gineara?

Bi aldiz. Familia kontuengatik itzuli nintzen 2012 eta 2013an, ahizpa hil zitzaidalako. 2013tik ez naiz itzuli. Egoera ez da batere egonkorra han. Etengabeko estatu-kolpeak eta ezegonkortasun handia daude.

Bertako zerbait duzu faltan?

Familia. Nire ama, eta batez ere, han dagoen nire seme zaharrena. 29 urte ditu eta duela hamaika urte ez dut ikusi. Migratzaileentzat tristeena familiarengandik bereiztea da. Zure jaioterritik oso urrun zaude, ezin da autoz iritsi eta txartelak oso garestiak dira. Ezin duzu zure jendea ikusi, eta batzuk hiltzen doaz agur esan ezinik...

Jon Urzelairen heriotza argitzea eskatuko du ekimen berri batek, gertakarien 50. urteurrenean

Jon Urzelai gogoan ekimena 1974an Guardia Zibilak eraildako gaztearen kasua epaiketaz kanpoko exekuzio baten bidez bizitzeko eskubidearen urraketa jasan zuela argitzea nahi du, eta frankismoaren biktima honen memoria eta errekonozimendua aldarrikatzen jarraituko duela iragarri du. Gertakari hura argitzeko bidean aurrera egiteko eta horren berri emateko, Egiari Zor Fundazioarekin lankidetzan, jarduera egutegi bat prestatzen ari da auzoan hurrengo hilabeterako.

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITOR MARÍN

Orain dela 50 urte, 1974ko irailaren 11n, erregimen frankistaren Guardia Zibilaren balek Jon Urzelai Imaz ETako kidea hil zuten Zorrotzako Untziola kaleko 6. atarian. Urzelairen heriotza gaur egun argitu gabe dauden kasu ugarietako bat da.

Urzelairen heriotzaren 50 urte bete direnean, Jon Urzelai gogoan ekimenak egia jakiteko garaia dela aldarrikatzen du

Kasu hau argitu ahal izateko konpromisoa jaso nahi du berriki sortu den *Jon Urzelai gogoan* ekimenak, eta Urzelaiak epaiketaz kanpoko exekuzio baten bidez bizitzeko eskubidearen urraketa jasan zuela argitzea nahi du. Hori horrela frogatzen bada, Urzelai exekuzio baten biktimatzat onartua izan beharko litzateke eta bere memoria berrezarritu, “baita auzo honetan duela 50 urtetik iraun duen memoria soziala ere”. *Jon Urzelai gogoan* ekimeneko kideek “egia jakiteko garaia” dela azpimarratu nahi dute: “jendar-

te gisa, iraganeko gertaerak ezagutu eta eza-gutarazi behar ditugu. Ez dugu ahaztu behar egia jakiteko eskubidea dugula”.

Bide horretan sakontzeko, urrian zehar, *Egiari Zor Fundazioarekin* lankidetzan, *Jon Urzelai gogoan* ekimena laster argitaratuko den jarduera egutegi bat prestatzen ari da auzoan. Alde batetik, egun hartan gertatutakoa jakinarazi eta, bestetik, kasua argitzeko bidean aurrera egiteko aukera eman nahi duena. Ekintza horietako bat “Giza eskubideen urraketen gaineko bertsio ofizialak airtortzaren garaian” hitzaldia izango da, pasa den irailaren 11rako iragarrita zegoena eta azken uneko arazo tekniko baten ondorioz atzeratu behar izan zena. Egun hartan, Urzelairen hilketaren 50 urte bete ziren.

Urzelairen heriotzari buruzko bertsio ofizial bat dago, jardun militarra legitimatzen duena. Baina inoiz ez da bertsio ofizial horren egiazkotasuna frogatu, egia sozialarekin eta heriotza horren inguruabarrekin aurrez aurre talka egiten baitu, hau da, ez dator bat lekukoek egindako gertakarien kontaketaekin. Horregatik, *Jon Urzelai gogoan* ekimenak gogora ekarri nahi du lekukoek kontatu zuten, Guardia Zibil frankistako kideak Untziola kaleko pisu barruan zain zeudela eta gazteak atea ireki zuen unean tirokatu egin zutela.



1974an Zorrotzan eraildako ETAKo kidea oroitzten zuen ikurrina agertzen zen Untziola kaleko parkean irailaren 11ko goizean

Bestalde, ekimen berri honek babilioan jarri nahi du 70eko hamarkadaren amaieran, Zorrotzako bizilagunek, modu herrikoian eta auzolanean, Jon Urzelai parkea eraiki zutela. Horrela ezagutu da beti auzokideon artean. Auzo Mugimenduko kide beterano baten hitzetan: “herriaren parkea da, Zorrotzako jendeak egina, beasaindar gaztea Guardia Zibilak hil zuen gertaera tragiko bat gogorazten duena. Argitu gabeko inguruabarretan, ustez exekutatu”. Era berean, Urzelainen irudia zuen monolito batek 20 urte inguru eman ditu parke horretako berdegunean jarrita. Auzoko bizilagunak urte urte arduratu dira, hildakoaren familiarekin eta lagunekin batera, gertaera haien oroitza-pena bizirik mantentzeaz, memoria arike-



Jon Urzelai Imaz
Argazkia: Euskal Memoria

ta gisa. Jakina denez, iaz, Bilboko Udalak Untziola kaleko Urzelainen omenezko monolitoa kendu zuen, Covite biktimen elkartearen salaketa jaso ondoren. Ekimen honetako kideek kritikatzten dute Udalak izan zuen jarrera talde ultraren salaketaren aurrean: “Zer aurre-itiatzko eginbide egin zituzten Bilboko Udalak salaketan jasotako informazioak egiaztatzeko?”

Hurrengo egunetako ekintzez harago, Urzelainen memoria eta errekonozimendua aldarrikatzen jarraituko dutela diote *Jon Urzelai gogoan* ekimeneko kideek, “frankismoaren biktima bat delako, Txiki eta Otaegi zein gure herriaren askatasunaren alde borrokatu ziren beste hainbat antifaxista bezala”.

**ESKAINTZA
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOAIA +
KRISTALAK** GOI-
GAMAkoak

265€

Sustapena indarrean + 4,00 esferako eta
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako

ibarretaluxury
O P T I C A

RPS: 213/18

100 urte

ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*

cafetxinbo

Especialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak

Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

NAGORE UGARTE:
2024ko Aste Nagusiko txupinera

// Ohore handia da txupinera izatea //

Aurtengo Aste Nagusia ahaztezina izan da zorrotzarrontzat, gure auzokide batek txupinera izateko ohorea izan du-eta. Nagore Ugarte, Itziar Ituño pregoilariarekin batera, Bilboko kaleak alaitzen ibili da egun eta gau, paregabeko bikotea osatuta. Lan handi horrek utzitako biharamunetik apenas berreskuratuta, bere azken elkarrizketa eskaini digu Nagorek.





Zergatik erabaki zenuen zure burua aurkeztea Txinboko txupinera izateko?

Txiki-txikitatik Aste Nagusia bizi izan dut, gure etxean sakratua zen. Oporrak Aste Nagusiaren aurreko ostiralean bukatzen ziren eta aste osoa Bilbon ematen genuen. Egune-ro aitarekin jaisten ginen erraldoiak, kilikiak, Gargantua eta abarretara. Gero etxera buelta, amarekin bazkaldu eta ondoren hirurok Bilbora, lagunekin batu... Beraz, txikitatik eza-gutu eta mirestu izan dut txupineraren figura. Orain dela 14 urte ere Txinbori egokitu zitzaion txupinera jartzea eta orduan ere nire burua aurkeztu nuen baina Pira izan zen hautatua. Sorte handia izan dugu Txinbon hain denbora laburrean bi txupinera izateagatik.

Zer sentitu zenuen Txinbotarrak konpartsak aukeratu zintuenean?

Momentu gazi-gozoa izan zen, beste konpartsakide batzuek ere bere burua aurkeztu zutelako eta nik bezainbeste merezi zutelako txupinera izatea. Baina, noski, asko poztu nintzen, oso hunkigarria izan zen. Egun horretan, Gilenekin [bikotekidearekin] batera bazkalzera joatea erabaki genuen, umerik gabe!

Noiz hasi zen zure txupinera agenda?

Uztailean, oporretan geundela umeekin. Bagenekien abuztuan lan gehiago izango nuela eta horregatik uztaila aprobetxatu genuen oporretan joateko. Bada, hondartzan geundela Bilbao Egunkaritik deitu zidaten elkarrizketa egiteko. Galderak idatziz pasatzeko eskatu behar izan nien eta idatziz erantzun! Hura izan zen nire lehenengo elkarrizketa.

Elkarrizketa asko egin dituzu?

Bai, pilo bat! Aste Nagusian egunero 2 edo 3 eta Aste Nagusiaren aurretik ere beste batzuk. Okerren eraman dudana izan da, oso urduri jartzen naiz. Momentu horietan nahi duzu komunikatu nahi duzuna ondo ulertzea eta batzuetan ez dakizu lortzen ari zaren ala ez. Ni beti plazaratzen saiatu izan naiz konpartsetan egiten den lana. Esaterako, Txinbon lortzen den dirua Zorrotzan musika tailerrak egiteko erabiltzen dela, garai batean euskaltegietan konpartsakideen matrikulak ordaintzeko, auzoko jaietan jarduerak egiteko... Horrez gain, Zorrotzako arazoak ere aipatu izan ditut, Sader-Profersarena adibidez. Bestetik, TicketBAI auziarekin ere konpartsen errealitatea islatzen saiatu naiz: ez garela profesionalak, bolondresak garela, ezin gaituztela tabernen pare jarri.

Galdera konprometitu asko egin dizkizute?

Ez hainbeste, izan ere Itziar Ituño da biotan famatua eta galderak batez ere berari zuzenduta zihoazen. Eskerrak Itziarrek eskarmentua duela prentsarekin eta elkarrizketak bideratzen jakin izan duela, nik ere parte har nezan.

Baztertuta sentitu zara pregoilariaren ondoan?

Ez, batere ez, oso gustura sentitu naiz leku guztietan. Baina normala denez, Itziar hain famatua izanik, kaletik jendea bere bila joaten zen bereziki. Zorionez, Itziar oso abila izan da, argazkiak eskatzen zizkieten berehala nigana zetorren biok argazkian agertzeko



Argazkia: Txinbotarrak



Argazkia: Bilboko Udala



Argazkia: Bilboko Udala



Argazkia: Bilboko Udala



Argazkia: Bilboko Udala

[protokoloagatik txupinera eta pregoilaria ezin dira banatuta azaldu argazkietan]. Oso pozik egon naiz, bikoterik onena izan da, ez nuke aldatuko Itziar pregoilari bezala baina aldi berean gogorra izan da, batez ere bera- rentzat. Mundu osotik etorri da jendea Itziar ikustera, Bilbotik ibiliko zela jakinda: Alema- niatik, Belgikatik, Greziatik, Mexikotik...

Itziarren eta zure artean konplizitate handia egon dela argi geratu da, nola suer- tatu da hori?

Aurkezpen ofizialetik sortu zen bion arteko txispa, alegia, aurrez aurre ezagutu genuen lehen egunetik. Hori baino lehen, Whatsapp talde batean baino ez genuen berba egin. Itziar oso emakume arrunta da, nire modukoa da, zaletasunak ere oso antze- koak ditugu. Begirada batekin bagenekin elkarrizketetan noiz jarraitu eta noiz moztu behar genuen, argazkiekin ere bagenekin noiz bai eta noiz ez esan... Oso bitxia irudi- tzen zait jendeak aipatzea oso ondo transmi- titu dugula zer den ahizpatasuna, emakume ahaldunak izatea... Baina horrelakoak gara, ez dugu ahalegin berezirik egin ezer trans- mititzeko!

Mantentzen duzue harremana oraindik?

Orain ez dugu hainbeste hitz egiten, astean bitan edo, baina uste dut gure harremana mantendu egingo dela. Nork bere bizitza dauka, noski, bera Basauritik Madrilerara ibil- tzen da eta ni hemen seme-alabekin. Baina, pentsa, orain bere lagun batzuk nire lagunak ere badira!

Txupinera eta pregoilariaren agenda diru- dien bezain luzea da?

Bai, leku batetik bestera ia korrika joaten ginen: orain jarduera baten irekieran egon, gero sari batzuk eman, ondoren elkarrizke- ta bat... Egia da atsedean hartzeko tartetxoak ere izan ditugula eta Jaibako [Bilboko Kon- partsakeko talde dinamizatzaileko] kideak han izan ditugula Itziar eta biok zaintzen, batzuetan gehiegi! Oso talde potentea dago Jaibaren atzean, benetan. Gero tarte libreak ere izan ditugu txosnetatik ibiltzeko eta zen- bait jardueratan ere parte hartzera animatu gara, noski! Adibidez, Kraban castellers tailer batean murgildu ginen eta oso ondo pasatu genuen.

txinbotarrak

zori... ko konpartsa



“ Bederatzi egun izan dira leku batetik bestera. Nahiz eta egunero nire etxera lotara etorri, apenas hartu dudan atseden

“ Itziar bikoterik onena izan da, baina aldi berean gogorra... Mundu osotik etorri da jendea Itziar ikustera Bilbotik ibiliko zela jakinda

Zelan uztartu dituzu txupinera eta amaren paperak?

Gilen emeez arduratu da eta laguntzaileak ere izan ditugu: ahizpak, amama... Ni gauez iristen nintzenean Gilen nire zain egoten zen eguna komentatzeko eta Anartz [hiru urteko umea] lo. Mirari [bost urteko umea], ordea, egunaren arabera nire bila etortzen zen atera: “ama, joango gara ohera hitz egitera?”. Anartzek goizetan, berriz, “ama, gaur ere txupina botatzera joan behar duzu? Ba kontuz ibili, e?”.

Nekatuta amaituko zenuen Aste Nagusia...

Hurrengo egunean, astelehenean, etxean eman nuen egun osoa, ezin nintzen mugitu! Kristoren eguraldi ona egiten zuen eta ni etxean, meekin. Apurka-apurka hasi naiz berreskuratzen baina eztarria urratuta izan dut aste osoan. Baina hori bai, astelehenean txupina bota behar izan banu, poz-pozik botako nukeen. Oraindik batzuetan gauez esnatzen naiz ez dakidala non nagoen. Bederatzi egun izan dira leku batetik bestera, jende oso desberdinarekin. Nahiz eta egunero nire etxera lotara etorri, apenas hartu dudan atseden. Neke fisikoaz aparte, emozionala ere badaukat. Oso polita izan da, baina oso intentsoa.

Berba egiguzu apur bat trajea egiteko prozesuaz.

Uste nuen luzeagoa izango zela! Egun batean geratu ginen neurriak hartzeko Itziar eta biok. Bertan jaka eta txapela egiteko neurriak hartu zizkidaten. Handik egun batzuetara, proba egitera joan ginen eta listo! Hori bai, aurkezpen ofizialera modista etorri zen, zer edo zer konpondu behar bazen.

Jantziak ere bere protokoloa dauka?

Bai, noski! Aste Nagusiko jarduera guztietan errespetatu beharrekoa da, gainera. Ezin duzu ez jaka ez txapela kendu, berdin du 20 zein 40 gradutan egon. Gonak edo prakek luzera jakin batekoak izan behar dute ere eta barrutik beti alkandora zuria eraman behar duzu. Oinetakoei dagokienez behintzat, eredu ezberdinen artean aukera dezakezu baina beltz-beltzak izan behar dira. Neuk aukeratutakoek, kasu, lore txiki-txiki bat zeukaten, laranja kolorekoa; bada, hori errotulki beltzez margotu behar izan nuen! Eta azkazalak, belarritakoak eta abar ezin dituzu nolahi eraman, ezin da txupineraren irudia desitxuratu. Hasi aurretik gehiegizkoa iruditzen zitzaidan baina orain argazkiak ikusten hasi naizela hobeto ulertzen dut. Azken batean jantzia da, ez da mozorroa eta zaindu

“ Lehenengo eguna oso polita eta hunkigarria izan zen. Arriagan hain urduri nengoen, non ez nuen ezta Marijaia ikusi ere egin! Balkoira irtetzean utzi nion negar egiteari, egun osoa malkotan eman ondoren

behar dugu. Edonola ere, egunean zehar beti izaten dira tartetxoak jaka kendu eta pixkat freskatzeko.

Aste Nagusiko lehen eguna bereziki maitatua da konpartsakideontzat. Aurten, txupinaren aurreko kalejira Txinbotarrak konpartsak ireki zuen. Nola bizi izan zenuen momentu hori?

Negarrez hasiko naiz [hunkitzen da]. Oso polita izan zen. Atera ginen Zabalbideko lokaletik [Bilboko Konpartsakaren egoitzatik], lehenik Aiora [iazko pregoilaria] eta Izaskun [iazko txupinera] eta euren atzetik Itziar eta biok. Eta malda jaisten hasi orduko konpartsa ikusi nuen, San Antongo zubian nire zain. Konpartsakideen artean sartu nintzen, denak animatzen ari zirela, oso-osoa hunkigarria izan zen. Itziar gixajoa bakarrik utzi nuen momentu batez, artean inor ez zuen ezagutzen! Gero Aste Nagusian aldrebes gertatu zait niri, bietan ospetsua bera delako. Beraz, hura nire momentua izan zen.

Ondoren kalejira, txupina... Zelan ikusten dira txupineraren tokitik?

Izugarria da jendearen aurpegiak ikustea, denak zuri begira, denak irribarrez, alai, zu animatzen, parrandarako gogoekin... Arriagako harrera eta trasteen aldaketa [aurreko txupinerak eta pregoilariak aurtengoei makila eta txupin-ohola emateko momentua] ere oso politak izan ziren. Hain urduri nengoen, non ez nuen ezta Marijaia ikusi ere egin! Gero, balkoira irtetzean utzi nion negar egiteari, egun osoa malkotan eman ondoren. Handik aurpegi guztiak ikusten nituen, gora begira, aho zabalik.

Zer arazo gertatu zen txupina botatzerako orduan?

Lehenik eta behin, pregoia ez zen batere ondo entzuten, soinu arazoak zeuden. Urta-sunek [jaietako zinegotziak] zeinu hizkuntza interpretari Itziar Ituñoren hitzak errepikatzen joan behar zuen. Gero, txupina jaurtitzeko momentua ailegatu zenean, ez nuen metxa ikusten, tutuaren atzean izkutatuta zegoen. Gorputza asko atera behar nuen balkoira sua emateko eta ez nuen metxa harapatzen baina azkenean lortu egin nuen. Hortik aurrera botatako txupin guztietan metxa aurrera begira jarrita zegoenez, arazorik ez!

Marijaiaren agurra ere oso berezia izaten da baina aurten zapuzteko zorian egon da poliziarekin izandako istilu batengatik, zer gertatu zen?

Udaltzainak jai eremura sartu ziren eta mantero bat identifikatu nahi izan zuten, baina manteroak berak eta jendeak aurre egin zieten. Orduan, manteroak eta beste pertsona bat atxilo eraman zituzten eta jendea poliziarren kontra oldartu zen, jai eremutik atera nahian. Gero eta jende gehiago bildu zen, tartean mantero eta konpartsakide asko eta asko, eta poliziak atzera egin behar izan zuen, Areatzako zubiaren bururaino. Han patruila gehiago zegoen baina jendea bertan tinko geratu zen, zubia blokeatzen. Ertzaintza ere etorri zen, udaltzainei laguntzera. Momentu horretan Itziar eta biok Txinboko terrazan geunden, Jaibako kideak ere gurekin zeuden, eta zubirantz joan behar izan zuten, egoera kontrolatzeko. Guk han egon nahi genuen, jendearekin, babesa ematen, baina aldi berean ezin genuen, Marijaiaren agurrerantz joan behar guelako. Bazirudien Ertzaintzak kargatu egingo zuela baina jendea tinko mantendu zen zubian eta azkenean polizia erretiratu egin zen. Oso momentu desatsegina izan zen, horrelakoak guztiz lekuz kanpo daude beti, baina jaietako azken arratsaldean gertatzea ere... Beraz, Jaibako kideak poliziarekin negoziatzen ari zirenez, ezin izan gintuzten Marijaiaren agurrera eraman, eta haien ordezt, Txinboko konpartsakide batzuek lagundu ziguten. Jaibakoak oso pozik geratu dira Txinboko konpartsakideek Aste Nagusian zehar erakutsitako inplikazioarekin.

// **Harritu nau jendeak duen prestutasuna ondo pasatzeko edozein jardueratan** //

Zer da zuretzat txupinera izatea?
Ohere bat. Azken finean, herriaren ordezkaria zara Aste Nagusian. Eta ardura handia ere bai, aldi berean zarelako Bilboko Konpartsa guztien ordezkari.

Zaila da txupinak botatzea?
Zaila ez, baina txinpartekin erre egiten zara batzuetan eta eskua beltz geratzen zaizu bolbora dela-eta! Kea ere arnasten duzu, eta kontuz ibili behar duzu jaka ez zikintzeko.

Deskubritu duzu Aste Nagusi berri bat txupinera izanda?
Zerbait berria deskubritu badut da jendeak zer

nolako prestutasuna duen ondo pasatzeko edozein jardueratan.

Aurtengo Aste Nagusiko momentu batekin geratu beharko bazenu, zein izango litzateke?

Batetik, txosnen irekieran neska batek Kaixarranka dantzatu zueneko, "Libre Palestina" kantaz lagunduta. Oraindik oilo-ipurdia jartzen zait. Bigarrena, nire amaren egoitzara egindako bisita. Aiton-amonak dantzan jarri genituen eta amak nirekin batera txupina jaurti zuen!

**Marijaiaren agurrean ere pregoilariak hitz ederrak bota zituen zure alde, konpartsa-
ren alde...**

Bai, oso polita izan zen. Itziarrek hasieran ez zuen inor ezagutzen Aste Nagusian eta oso babestuta sentitu da konpartsen aldetik, batez ere Txinboretetik, noski. Txinboko txosna bere etxea izan da! Jaibako kideekin ere oso eskertuta egon da eta azken pregoi horretan banan-banan aipatu zituen beraien izenak!

Nola deskribatuko zenuke azken momentu hori?

Txupina eta agurra txanpon baten bi aldeak bezala ikusten ditut. Txupinean zu goian

zaude eta herria behean, jaia piztera doa eta handi-handi sentitzen zara. Agurrean berriz, herria goian eta zu behean, batean. Dena amatatzen ari da eta txiki-txiki sentitzen zara. Itziarren pregoietan ere dualitate hori islatzen da. Txupineko pregoia bertso batzuekin hasi zuen, eta agurreko pregoia, berriz, bertso batzuekin bukatu, Mauriziaren kopletan inspiraturik.

Elkarrizketaren amaierara heldu gara, Nagore. Zer esan nahi zenuke bukatzeko?

Eskertu nahi diot Txinbori aukera hau eman izana [hunkitzen da], lan bikaina egin duzue. Oso babestuta sentitu naiz, benetan.



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12


VÍA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya



AGENDA

Irailak 27 - Urriak 6

ZORROTZAKO JAIAK 2024

Egitarau osoa topa dezakezu Jai Batzordeko sare sozialetako profiletan

Irailak 28, larunbata

13:00 Azoka parkean.

Umeentzako antzerkia:

NAITA PRODUKZIOAK:

"Kontu eta kanta". Euskal Txokoak babestuta



Irailak 29, igandea

12:00 Azoka parkean.

BERTSO SAIOA:

MAIALEN LUJANBIO,
JOANES ILLARREGI, NEREA
IBARZABAL eta JULIO SOTO.

Zorrotzako
jaiak 2024

bertso
saioa

ZORROTZA
Irailak 29, igandea
Azoka Plazan.
12:00etan



Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko agendetan (aldizkarian eta webgunean) iragartzeko, zm@zorrotzmorrotz.eus helbidera idatzi.



Mesfida zaitetz

Bea Salaberri Larre.

Txalaparta. 2024. 408 orrialde.



Laurendia gazteari mesfida-zteko esaten diote. Esaten dio aitak, esaten diote adiskideek, bai eta, azkenean, bere buruak ere. Nafarroa Behereko landa eremutik Baionara ikastera joanda, inguruarekin batera aldatuko zaizkio jakin nahiak, piztuko kontzientzia politikoa eta sortuko ordura arte bururatu ere egin gabeko zalantzak. Horrela, ETA erakundearen launtza sarean sartuko da, fardelak batera eta beste-ramaten lehenik, etxean kideak aterpetzen gero. Laurendiaren istorioa kontatzen bazaigu ere, historia kolektiboa dugu hau, garai nahasi eta oposizioz bete batean hamaika emakume aritu baitira, ezkutan eta espanturik gabe, engaiamenduaren sarean.

Memoria kolektiborakobalioko duen ekeberri harilkatu du Salaberrik, fikzioa eginez errealitateari komeni bezain hurbiletik segituta.



BIDE BAKARRA "Hiru marra"

(EP) 2024



Nahiz eta inoiz tendentzia izatera heldu ez den, rap metala bezalako estiloak bere tokia egitea lortu du Euskal Herriko eszenan. Gaurkoan Lizarraldetik datorren Bide Bakarra taldea izango dut hizpide. Lerro hauek idatzi aurretik, gogora etorri zait duela urte dezente Iruñeako sanferminetan ezusteko handia hartu nuela taula gainean lehenbizikoz ikusi nituenean, dena hankaz gora jarri baitzuten. Denbora asko igaro da egun horretatik eta poztekoa da berriro itzuli direla jakitea.

Apirilaren bukaeran 5 abestiz osatutako EPa kaleratu zuten, ordu laurdeneko iraupenera heldzen ez dena. Musika modu azkarrean kontsumitzeko ohitura ezarri den honetan formula horri eutsi dio talde nafarrak. Alde horretatik ez zaie ezer leporatu behar, batez ere hasiberriak ez direlako. Estilo alde-rik argi eta garbi Rage Against the Machine datorrit burura, belaunaldi askoren erreferentzia zuzena. Hala ere, dj-aren skratx eta sanplerrak eta bi aho-then arteko nahasketak zigilu propioa ematen diete. Euren zuzeneko potentiaz disfrutatzeko gogoekin!

IBAI BARRIOS



PINTXOTAN

Oilasko errea

Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 10 euro.

Osagaiak: Oilasko garbi bat, gatza, piperbeltza, ardo zuria, ura eta garagardoa.

Labea 180 gradutan aurreberotzen da. Oilaskoari gatza eta piperra botatzen zaizkio, eta litro laurden ur, litro laurden ardo zuri eta litro erdi garagardez osatutako nahasketa batekin suezitu behar da hamar minuturik behin, lehortzen utzi gabe, ordu eta erdiz. Denbora hori igarota, labea amatatuko dugu eta 10 minutuz jalkitzen utziko dugu. Zatituta eta herriko piperrekin eta patata frijituekin batera zerbitzatzea gomendatzen dugu.



ROCKET TAVERN

Ordutegia:

Astelehenetik ostegunera:

6:00etatik 23:30era

Ostiral eta larunbatetan:

7:00etatik 1:00era

Igandean: 7:00etatik

23:30era

Frai Juan, 8.

Tel. 94 655 68 98



Plater konbinatuak,
hanburesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

**MESÓN
LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

LASTER ⚡
Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net
MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

TXOKO FEMINISTA



Frantzian gertatutako bortxaketa ma-siboaren azaleratzearen ostean (50 gizon baino gehiagok urteetan zehar konorterik gabeko emakume bat bortxatu duten kasua), emakumeek sufritzen duten jazarpen sexua-laren gainean asko eztabaidatzen ari da.

Gogoratzea da 2023ko datuak biltzen dituen “Sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzko txostena Espainian”, jazarpen sexua-laren biktimeen %86 emakumeak izan direla eta erasotzaileen %93 aldiz, gizonezkoak izan direla ikusita, delitu mota hauetan genero konnotazioa nabarmena dela argi dago.

Emakumeak, parte batez, haien esku-bideen eta seguru bizitzearen aldarrikape-

na kaleratu dute, aho batez. Gizonezkoak, gertatutakoa kondenatzeaz aparte, batzuk seinalatuta sentitu dira #notallmen aldarri-katuz.

Guztiok ulertu behar dugu heteropa-triarkatuak emakumeak arriskuan eta men-peko posizioan jartzen gaituen bitartean, pribilegioak onartzen dizkiela gizonei, baita sexu-harremanetan ere. Eta emakumeok ja-saten ditugun indarkeria guztiekin bukatze-ko, gizonezkoen ahotsa eta akzioa ere behar dela. Hau da, gizonen indignazioa behar da, baina ez bakarrik seinalatuak sentitzen di-renean, baizik eta kasuak irmo kondenatze-ko eta aipatutakoa bezalako kasuak berriro gerta ez daitezen ahalbidetzeko.

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Berreskuratutako beharrekotako igarobide publikoa

San Migel auzunearekin muga egiten duen Zorrotza Kastrexana errepideko atzealdea ekarriko dugu atal honetara. Gune ez irigarria eta ez segurua da egun, argiztapen eskasa duelako. Baina era berean, Zazpi Landatik jaisten diren erretiratuen klubeko erabiltzaileentzat igarobide naturala da bertara iristeko. Inbertsio oso txikiarekin, irigarri eginez eta behar bezala argituz, gaur egun ia erabiltzen ez den espazio publiko bat berreskuratuko litzateke.



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidetza estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO



MADNES

Tel. 94 441 62 75

Iraila

Konturatzerako beste irail bat etorri zaigu gainera. Iritsi bezala alde egin du udak. Lerrook idazten ditudan unean oraindik ere udan gaudela diote telebistan. Zeru grisen pean errutina berri batean murgilduta dabilenarentzat, ordea, udatik gutxi du irailak. Tira, irakasle jendearen kontuak dira hauek, izan badirenez uda betean lan eta lan jardun ondoren oporraldia orain hartuko dutenak. Horientzat esanahi zeharo desberdina izango du irailak.

Trantsizio garaia izan ohi da niretzat iraila, ortzimuga berriak ikusmiratzekoa. Berriak eta ez hain berriak. Hortxe dago konfort eremuaren kontzeptu hori, batzuek gorrotatua. Konfort eremua berez da desiragarria,



ASIER URKIZA

“ *Agian, eremuak eremu, irailaren sasifilosofia hori guztia jarri beharko genuke auzitan, inposatu nahi diguten bukaera-hasiera binomiotik atera, produktibitatearen hasierarekin lotuta baitago*

nire irudiko. Guztion nahia beharko luke lasai eta zorionsu bizitzeak, norbere buruarekin zein besteekin bakean. Autokonplazentziatzat

dute hainbatek turbokapitalismo eta hiperaktibitatearen garaian. Izatekotan, konfort eremua zein den zehaztea, horrek dirudi garrantzitsuagoa. Ustez bertan goxo egonda lokatzetan egotea. Noraeza erosotasunarekin nahastea eta korronteak eraman zaitzala uztea.

Agian, eremuak eremu, irailaren sasifilosofia hori guztia jarri beharko genuke auzitan, inposatu nahi diguten bukaera-hasiera binomiotik atera, produktibitatearen hasierarekin lotuta baitago. Izan ere, hau dioskute, lau haizeetara, “eskolara buelta” itxurako esloganek: “Bukatu da aisia, goatzeko denbora, gurpilera sar zaitztez berriro!” Horren kontra matxinatu daiteke norbera, bizimoduaren bitartez. Hainbeste zor diogu aisirik batere ez duen jendeari.

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidalguzu zure artikulua zm@zorrotzmorrotz.eus helbide elektronikora gaiaren laukian “iritzia” jarrita. Eskerrik asko!



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



Amaia

Udan normalean ez naiz auzoan egoten. Hala ere, ume helduagoentzat, 10 urtetik gorakoentzat, ekintzarik ez dagoela uste dut.



Aingeru eta Ekaitz

Jende askorik ez dago hemen udan.

Zorrotzan hondartza edo behintzat igerileku irekia egotea gustatuko litzaiguke

IRATZE PÉREZ

Nolakoa da uda Zorrotzan?

Nola gustatuko litzaizuke izatea?



Miguel

Ni udan ez naiz Zorrotzan geratzen eta lan egin behar dutenak baino ez direla geratzen uste dut, beraz nahiko bakartia izan behar duela suposatzen dut.



Eugenia

Ez dago jende askorik hemen udan. Beraz, umeentzako aktibitate gehiago egotea nahiko nuke. Eta oro har, dibertimendu gehiago guztiarentzat!



Jose

Uda hasi bezain laster banao herrira. Udan ez naiz sekula Zorrotzan egon

ehbildu

STORKIZUNA DA ORAIN

Esperantzaren nazioa.



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

**iKasi
MiKasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



Pinadia ebaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
📧 sietecampas@gmail.com



Ikastalde ebaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
📧 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 428 01 36
📠 94 428 01 37
📧 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

bertso sajoa

Zorrotzako jaiak 2024



ZORROTZA
Irailak 29, igandea
Azoka Plazan.
12:00etan

Antolatzaileak:





Babeslea: 

Laguntzailea: 



Maialen Lujanbio



Joanes Illarregi



Nerea Ibarzabal



Julio Soto



AURKITU ZURE
EUSKALTEGIA

EUSKARA NONAHI

MATRIKULATU ZAITEZ

EUSKALTEGIETAN!

Udalak finantzatutakoa

bilbaeuskaraz.bilbao.eus



Bilbao